

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda aste honetarako

Hitzaldiak, kontzertuak, ikastaroak, erakusketak, egoitza artistikoa, bisita gidatua eta Pamplona Negra jaialdia hartuko ditu.

Astelehena, 2018.eko urtarrilak 22

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu urtarrilaren 22tik 28ra bitarteko asterako:

“Yo, la peor de todas/Ni, denetan okerrera” erakusketa-proiektuaren barruko jarduerak jarraituko dute astean zehar: hitzaldia, asteazkenean, Nafarroako Musean, Bracha Ettinger artista-pintore, artista-teorialari eta psikoanalistaren eskutik; bisita, igandean, Nafarroako Musean, Mireya Martín, Sofia Albero eta Eva de la Vegak gidatua; eta bitartekaritza-jarduerak, astearte eta ostiraletan, Mireya Martín eta Sofia Alberoren eskutik. Halaber, Nafarroako Liburutegiak “Espiritualidad para vivir: una urgencia cultural” izenburuko hitzaldia hartuko du, José Arregik emana, “Espiritualtasunaren koloreak” zikloaren barruan.

Zinemari dagokionez, hiru saio programatu ditu Nafarroako Filmotekak: “Los pájaros”, asteazkenean; Punto de Vista jaialdiko Foco ziklo berria, Agnes Vårdari eskainia, ostegunean; eta “Abrir puertas y ventanas”, ostiraletan.

Haurrentzako aisiak asteazkenean du hitzordua, 18:00etan, Nafarroako Liburutegian, “Ongi etorri ipuinetara” tailerraren saio berri baten eskutik; gaztelaniaz izango da oraingoan. Horrez gain, jabetza intelektualaren eskubideei buruzko aholkularitza-saioa egingo da Huarte Zentroan, ostegunean, eta, ostiral eta larunbatean, Ekosistema programen saio berri bat; bestetik, Irati Gorostidi artistaren “Gorputz airisak” egoitza artistikoak jarraituko du ostiral, larunbat eta igandean.

[Esteka honetan](#) duzu kultur programazio osoa.



Bracha Ettinger artistak hitzaldia emanen du heldu den asteazkenean Nafarroako Musean.